Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urriaren 13a, ostirala — 198 — Viernes, a 13 de octubre de 2023

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

FA-KG-2023-0475 Foru Agindua, 2023ko urriaren 6koa, Donostiako «Txuri-Urdin Izotz Jauregia» kirol instalazioa erabiltzeko Arauak ezartzen dituena.

Txuri-Urdin Izotz Jauregia kirol ekipamendu berezia da, Donostiako Anoeta pasealekuan dago eta titularra Gipuzkoako Foru Aldundia da. Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuari atxikita dago, eta organo horren eskumena da jauregia administratzea eta kudeatzea. Foru inbentarioan jasota dago, jabari publikoko ondasun gisa.

Instalazio hori 1972an eraiki zuen Explotación de Pistas e Patinaje, SA enpresak eta 1990ko abendura arte ere enpresa horrek ustiatu zuen.

Data horretatik aurrera, hainbat enpresa jardun dira ustiaketan, eta bere garaian onartu ziren erabilera arauak gehiago zehaztu behar dira.

Horregatik, eta aurreikusten denez kontratazio berri bat egitea, instalazioa erabiltzeko arau berriak onartu behar dira aurrekoak ordezteko, eta argitaratu egin behar dira indarra izan dezaten eta jendeak ezagut ditzan.

Azaldutakoaren arabera eta 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.1d) artikuluan emandako eskumenak erabiliz, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak,

EBAZTEN DU

Lehenengo. Onestea Txuri-Urdin Izotz Jauregia Erabiltzeko Arauak. Arau horiek foru agindu honen eranskinean daude.

Bigarren. Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

ERANSKINA

Donostiako «Txuri-Urdin Izotz Jauregia» kirol instalazioa erabiltzeko Arauak.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Helburua.

Arau hauen xedea da arautzea kirol instalazioa eta bertan ematen diren kirol zerbitzuak, prestazio modalitate desberdinak ezarrita eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehaztuta.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

Orden Foral FA-KG-2023-0475, de 6 de octubre de 2023, por la que se establecen las Normas de uso de la instalación deportiva «Palacio del Hielo Txuri-Urdin» de San Sebastián.

El Palacio del Hielo Txuri-Urdin es un equipamiento deportivo singular, sito en el Paseo de Anoeta de San Sebastián, cuya titularidad corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, encontrándose adscrito al Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, órgano que ostenta la competencia de su administración y gestión. Se halla incluido en el inventario foral como bien de dominio público.

La instalación fue construida en el año 1972 por la empresa Explotación de Pistas de Patinaje, S.A., quien se mantuvo en la explotación del equipamiento hasta diciembre de 1990.

Desde la citada fecha se han sucedido en la explotación diversas empresas, y los Reglamentos de Uso aprobados en su día requiren a día de hoy una mayor concreción.

Por ello, y ante la nueva contratación prevista pocede aprobar una nuevas normas de uso de la instalación que sustituyan a las anteriores y proceder a su publicación para su propia eficacia y conocimiento general.

En virtud de cuanto ha quedado expuesto, y en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 40.1.d) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esta Diputada Foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,

RESUELVE

Primero. Aprobar las Normas de Uso del Palacio del Hielo Txuri-Urdin que se acompaña como anexo a la presente Orden Foral.

Segundo. Ordenar la publicación de la presente orden foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

ANEXO

Normas de uso de la instalación deportiva «Palacio del Hielo Txuri-Urdin» de San Sebastián.

TÍTULO PRELIMINAR

Artículo 1. Objeto.

Las presente Normas de Uso tienen por objeto regular la instalación deportiva y los servicios deportivos que en ella se prestan, estableciendo las distintas modalidades de prestación y fijando los derechos y deberes de las personas usuarias.

EK\CV GAO-I-2023-07554

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Erabilera arau hauek aplikatuko dira Txuri-Urdin Izotz Jauregiaren instalazioetan (Donostiako Anoeta pasealekua).

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

3. artikulua. Erabiltzaileak.

Erabiltzaile izango da arau hauetan aurreikusitako baldintzak beteta, instalazioan sartu eta hori erabiltzera doazenak.

Erabiltzaileak talde hauetan banatuko dira:

— Abonatuak.

— Kolektiboa.

— Ez abonatua.

— Ikastarogilea.

— Ikuslea.

4. artikulua. Abonatuak.

a) Abonatua izango da, eskaerako inprimakia aurkeztuta izena emana izan, instalazioetara sartzeko titulua edo gailua izan eta ordainketak egunean dituena.

b) Oro har, abonuak desberdinak izango dira, eta onurak, ezaugarriak eta prestazioak arautuko dira prezio publikoetan.

c) Instalazioetan sartzeko gaitzen duen titulua edo gailua pertsonala eta besterenezina da. Titulu edo gailu berria egin behar bada, aurrekoa lapurtu, galdu edo hondatu delako, horretarako ezarritako zenbatekoa ordaindu beharko da.

5. artikulua. Kolektiboa (ikastetxeak, kirol klubak...).

Kolektiboa izango da kirol instalazioak hitzarmen bidez, Aldundiarekin progamatutako erreserbaren bidez edo puntualki jarduera jakin baterako edo ordutegi jakin batean erabiltzen dituen pertsona fisikoen taldea edo pertsona juridikoa. Kolektibo bakoitzeko arduradun bat izendatu beharko da.

5.1. Ikastetxeak.

Ikastetxeetako gorputz-hezkuntzako orduak eta eskola kiroleko eskola orduak dira.

a) Eskolako ordutegian, kirol instalazioa nagusiki erabiliko da lurraldeko ikastetxeen izotz irristaketako eta hockeyko hastapeneko eskola kanpainako eskolak emateko. Ikastetxeek izena emango dute GFAren eskola kiroleko aplikazio informatikoaren bidez eta, ondoren, Txuri Urdinen instalazioko arduradunak berretsiko die erabilgarri dagoela.

b) Eskola kiroleko hurrengo denboraldian eskolako ordutegitik kanpo behar dituztenean instalazioak, eskaerak aurkeztuko dira indarreko kontratazio administratiboen pleguetan ezarritako epeetan. Kasu guztietan, eskoletako taldeak beren hezkuntza fisikoaz eta portaeraz arduratzen diren irakasleekin joango dira instalazioetara.

c) Irakasle arduraduna (begiralea/hezitzailea) beti bere taldearekin batera joango da sarrerara eta irteerara; instalazioak ikuskatuko ditu sartu eta irten aurretik, eta itxaron beharko du azken ikaslea atera arte.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Estas Normas de Uso serán de aplicación a la instalación Palacio del Hielo Txuri-Urdin, sito en el Paseo de Anoeta de San Sebastián.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 3. De las personas usuarias.

Se considerará persona usuaria a toda persona física o jurídica que, previos los requisitos previstos en estas Normas de Uso, acceda a la instalación con ánimo de hacer uso de la misma.

Las personas usuarias de la instalación lo serán en calidad de:

— Personas usuarias abonadas.

— Persona usuaria colectiva.

— Persona usuaria no abonada.

— Cursillista.

— Espectadora o espectador.

Artículo 4. Personas usuarias abonadas.

a) Se considerará persona usuaria abonada aquella persona física que, habiendo formalizado su inscripción mediante la presentación del impreso de solicitud, esté en posesión del título habilitante o dispositivo de acceso correspondiente y se halle al corriente en el pago de las cuotas.

b) Con carácter general los abonos podrán ser de diferentes tipologías cuyos beneficios, características y prestaciones se regularán en los correspondientes precios públicos.

c) El título habilitante o dispositivo de acceso será personal e intransferible. La confección de un nuevo título o expedición de un nuevo dispositivo por robo, pérdida o deterioro obligará al pago de la cuantía que oportunamente se establezca.

Artículo 5. Persona usuaria colectiva (colegios, clubes deportivos...).

Se considerará persona usuaria colectiva aquel grupo de personas físicas o una persona jurídica, que, bien mediante convenio, reserva programada con la Diputación, o bien puntualmente, utiliza las instalaciones deportivas para una actividad concreta y/o en un horario determinado. Deberá nombrarse a alguien responsable por cada persona usuaria colectiva.

5.1. Colegios.

Lo forman las horas de educación física de los centros educativos y el deporte escolar lectivo.

a) Durante el horario escolar la instalación deportiva estará principalmente dedicada a acoger las clases de campaña escolar de iniciación al patinaje y hockey sobre hielo de los colegios del territorio. Los centros escolares realizarán la inscripción a través de la aplicación informática de deporte escolar de la DFG y posteriormente el o la responsable de la instalación del Txuri Urdin confirmará la disponibilidad.

b) Las solicitudes de las instalaciones que necesiten para la siguiente temporada del deporte escolar fuera del horario escolar, se presentarán en los plazos referidos en los pliegos de las contrataciones administrativas vigentes. En todos los casos, los grupos escolares accederán a las instalaciones acompañados del profesorado responsable de su educación física y de su comportamiento.

c) El profesorado responsable (personal monitor/educador) siempre acompañará a su grupo a la entrada y a la salida; revisará las instalaciones antes de entrar y salir de éstas y deberá esperar hasta que salga el o la última alumna.

EK\CV GAO-I-2023-07554

5.2. Kirol klubak.

1. Kirol kluben erabileran honako hauek bereizten dira:

a) Entrenamendu arruntak: denboraldi bateko entrenamenduetarako erreserbak egin beharko dira indarreko kontratazio administratiboen pleguetan eta arau hauetan ezarritakoaren arabera. Jasotako eskaeren arabera, beharrezko alokairuak egingo dira. Baimen horiek denboraldi baterako izango dira.

b) Denboraldiko lehiaketa arruntak: denboraldi hasieran zehaztuko dira klub bakoitzarekin lehiaketaren egunak eta orduak. Klubek aurkeztu beharko dute lehiaketa egutegia indarreko kontratazio administratiboen pleguetan ezarritakoaren arabera.

c) Ezohiko entrenamenduetarako eta lehiaketa ofizialetarako eskaerak: gutxienez, hamabost egun lehenago egingo dira.

d) Campus eta teknifikazioetarako eskaerak (uda): udan campus bat edo teknifikazio bat antolatu nahi duten kirol klubek idatziz eskatu beharko dute, campus/teknifikazioaren proiektua edo programa aurkeztuta, eta jasotako eskaeren eta aurkeztutako proiektu/programaren kalitatearen arabera, instalazioa gordeko da eskatutako aldirako.

2. Instalazioak erabiltzeko ordutegiak banatuko dira indarreko kontratazio administratiboen pleguetan eta arau hauetan ezarritakoaren arabera, interesa duten kluben beharrak entzun ondoren eta indarrean egongo dira kirol denboraldi batean. Hala ere, ordutegi horiek aldatu daitezke ekitaldiak antolatzeko.

Kirol klubek, instalazioak erabiltzeko ordutegia esleitzen zaienean, ordutegi hori banatuko dute 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta gaiari lotuta indarrean egon daiteken edozein legeren arabera, erabiltzaile ororen arteko berdintasuna sustatzen duten ekintzak burutu eta erabakiak hartuta.

3. Ezinbestekoa da beren entrenamenduetarako instalazioak eskatu nahi dituzten izotz klub edo elkarte guztiek egoitza soziala Donostian izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratuta egotea.

4. Instalazioak entrenamenduetarako erabiltzeko erreserbak onartuko dira lehentasun irizpide hauen arabera:

I. Aurreko denboraldiko egutegian eskatutako ordutegia eman izana, betiere erreserba eragiten duen jarduera aktibo badago.

II. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin edo Kirolgi Fundazioarekin lankidetza hitzarmena indarrean duten klub edo elkarteak.

III. Erreserba baliatuko duten kirolarien lehiaketa maila, kontuan izanda berdintasun maila hobea lortzera bideratutako ekintza positiboakburutzeko aukera.

IV. Klubak eta kirol diziplinak estatu mailan dituen lizentzien kopurua.

V. Emakume talde gehien dituzten klub edo elkarteak; talde kopuru eta kategoriak berak badira, kirol instalazioaren erabileran duten antzinatasunaren arabera erabakiko da.

VI. Dibertsitate funtzionala duten pertsonak integratzera bideratzen diren kirol jarduerak antolatzen dituzten klub edo elkarteak; jarduera kopuru bera badute, kirol instalazioaren erabileran duten antzinatasunaren arabera erabakiko da.

VII. Gainerako klub edo elkarteak, eskaeraren ordenaren arabera, betiere espazioren bat badago erabilgarri. Ez badago, ezingo da entrenatzeko ordurik esleitu.

5.2. Clubes deportivos.

1. Se diferencian en el uso de clubes deportivos:

a) Entrenamientos ordinarios: la reserva para entrenamientos de una temporada, se deberán realizar en los términos detallados en los Pliegos de las contrataciones administrativas vigentes en cada momento y las presente Normas de Uso. Según las solicitudes recibidas se llevarán a cabo los alquileres necesarios. La duración de dichas autorizaciones será para una temporada.

b) Competiciones ordinarias de la temporada: al principio de temporada, se concretará con cada club los días y las horas de competición. Los clubes deberán entregar los calendarios de competición en los términos detallados en los pliegos de las contrataciones administrativas vigentes.

c) Solicitudes para entrenamientos y competiciones oficiales extraordinarios: se realizarán, como mínimo, con quince días de antelación.

d) Solicitudes para campus y tecnificaciones (verano): los clubes deportivos interesados en organizar un campus y/o tecnificación en el periodo de verano, tendrán que solicitarlo por escrito, presentando un proyecto o programa del campus/tecnificación debidamente detallado, y según las solicitudes recibidas y calidad de proyecto/programa se llevará a cabo la reserva de la instalación para el periodo solicitado.

2. La distribución de los horarios de uso de las instalaciones se realizará conforme a lo establecido en los Pliegos que rijan las contrataciones administrativas vigentes en cada momento y en las presente Normas de Uso una vez oídas las necesidades de los clubes interesados y serán válidos durante el desarrollo de una temporada deportiva. Si bien estos pueden tener variaciones por la organización de eventos.

Los clubes deportivos, una vez tengan adjudicadas las horas de uso, distribuirán dicho horario teniendo presente el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, y cualquier otra legislación vigente en la materia, promoviendo acciones y decisiones que impulsen la igualdad en todas las personas usuarias.

3. Es indispensable que todos los clubes o asociaciones de hielo que quieran solicitar instalaciones para sus entrenamientos tengan sede social en San Sebastián y esten registradas en el Registro de Entidades Deportivas del Pais Vasco.

4. La concesión de reservas de uso para la utilización de instalaciones para entrenamientos se realizará atendiendo a los siguientes criterios en orden de prioridad:

I. Tener concedido el horario de reserva de la instalación solicitado en el calendario de la temporada anterior, siempre que se mantenga activa la actividad objeto de la reserva.

II. Clubes o asociaciones con Convenio de Colaboración en vigor con la Diputacion Foral de Gipuzkoa o Kirolgi Fundazioa.

III. Nivel de competición de los y las deportistas para quienes se solicita la reserva, teniendo en cuenta la posibilidad de realizar acciones positivas dirigidas a conseguir un mayor desarrollo de la igualdad.

IV. Número de licencias del club y de la disciplina deportiva a nivel estatal.

V. Clubes o asociaciones que tengan más número de equipos femeninos; a igual número de equipos y categorías, por orden de antigüedad como usuarios de la instalación deportiva.

VI. Clubes o asociaciones que organicen actividades deportivas dirigidas a la integración de personas con diversidad funcional; a igual de número de actividades, por orden de antigüedad como usuario de las instalación deportiva.

VII. Resto de clubes o asociaciones, por orden de solicitud, siempre que existan espacios disponibles. Si no los hubiera no será posible asignar horarios de entrenamiento.

EK\CV GAO-I-2023-07554

5. Lehiaketako partidak jokatzeko pista eskatzen duten klub federatu guztiek beren lehiaketa egutegiaren kopia bat eman beharko diote Foru Aldundiari edo hark adierazitakoari.

6. Aldundiari aurrez jakinarazi gabe instalazioa hiru egunez erabiltzen ez duten taldeei egutegian adierazitako erreserba baliogabetuko zaie (ezinbesteko kasuak direnean izan ezik).

7. Aldundiak bertan behera utzi ahal izango ditu lehen adierazitako instalazio eta bulegoak erabiltzeko lagapen eta alokairuak, lehentasunezkotzat jotzen dituen beste erabilera batzuetarako baliatzeko, betiere justifikatuta badago eta gutxienez 7 egun lehenago jakinarazten badu.

8. Ekitaldi berezi bat antolatzen bada, kluben entrenamenduen ordutegiak aldatu ahal izango dira.

9. Klubek esleitzen zaizkien aldagelak erabili ahal izango dituzte taldekideen arropa eta poltsak gordetzeko kirola egiten duten bitartean.

10. Klubek bileretarako eta hitzaldietarako prestatutako espazioa erabili ahal izango dute, aurrez eskaera eta erreserba eginda.

11. Lehiaketa ofizialetarako, kirol klubek idatziz bidali beharko dute denboraldiko egutegia, eta baita burutuko diren jarduerak eta ordutegiak ere, gutxienez 15 egun lehenago.

12. Kirol elkarte eta klubek antolatutako kirol ekitaldietako –entrenamenduak barne– erantzukizun zibila antolatzaileena izango da. Hartara, erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu beharko dute, eta denboraldi hasieran horren kopia eman Foru Aldundiari edo hark zehazten duenari.

13. Lehiaketa eta ikuskizunetan publikoak instalazioetan burutzen dituen ekintzen erantzukizuna antolatzaileena izango da. Horretarako, Autobabeseko Plana ezagutu beharko dute eta bertan ezarritako betebeharrak bete; hala ere, nahitaezkoa izango da sektoreko indarreko araudi guztia errespetatzea.

14. Instalazioak hondatu edo apurtzen badira, erreserba egin zuen pertsonaren edo entitatearen konturakoak izango dira. Lehiaketa ofizialetan gertatzen badira, kalte horiek Federazioari eta Klubari jakinaraziko zaizkie, eta bertako kluba izango da aurkako taldeek eragiten dituzten kalteen erantzule subsidiarioa.

15. Entrenatzaileek eta, halakorik ezean, gurasoek edo tutoreek bermatu beharko dute adingabeak ondo portatzen direla, eta tratu txarren, bullingeko edo jazarpeneko kasuetan jarduteko ardura eta betebeharra izango dute.

16. Kirol partidetara sartzeko sarrera kobratzen duten kirol erakundeek aurrez jakinarazi beharko diete Gipuzkoako Foru Aldundiari eta instalazioaren kudeatzaileari. Salmentako lehiatilak erabili ahal izango dituzte, baldin badaude, baina beren konturakoa izango da kobratzeko eta ekitaldiak ondo funtzionatzeko beharrezko kontrolaburutzeko langileak jartzea.

17. Instalazioen erabilerari eragiten dioten egoera berezi eta apartekoetan –obrak, larrialdiko egoerak, etab.–, instalazioaren erabilera eta irekiera ordutegia guztiz edo partzialki gutxitzea suposatzen badute, ezinbesteko kausengatik, erabilgarri geratzen diren orduak ere artikulu honetan zehaztutako irizpideen arabera banatuko dira.

6. artikulua. Ez abonatua.

Ez abonatua izango da dagokiona ordainduta sartzen dena instalazioan. Horretarako gaitzen duen titulua emango zaio, eta irteten den arte gorde beharko du.

5. Todos los clubes federados que soliciten pista para jugar sus partidos de competición deberán entregar, obligatoriamente, una copia de su calendario de competición a la Diputación Foral o a quien esta determine.

6. A los equipos que no hagan uso de la instalación concedida por tres días, sin previa comunicación a la Diputación o a quien, en su caso, se determine, se les anulará la reserva de uso recogida en el calendario (a excepción de causas de fuerza mayor).

7. La Diputación podrá suspender las cesiones y alquileres de uso de instalaciones y dependencias antes señaladas para otros usos que estime prioritarios de manera justificada, previa comunicación con una antelación mínima de 7 días.

8. En el caso de organizarse un evento especial, los horarios de entrenamientos de los clubes podrán sufrir variaciones.

9. Los clubes deberán hacer uso de los correspondientes vestuarios que se les asignen para guardar la ropa y bolsas de los o las componentes del equipo, durante la práctica deportiva.

10. Los clubes podrán hacer uso de los espacios para reuniones, charlas, habilitados, previa solicitud de uso y reserva.

11. Para las competiciones oficiales, los clubes deportivos deberán enviar por escrito el calendario de la temporada y, como mínimo, con una antelación de 15 días, las actividades a desarrollar y los horarios.

12. La responsabilidad civil de los eventos deportivos organizados por las asociaciones y clubes deportivos, incluidas las sesiones de entrenamiento recaerá sobre los mismos. A este efecto deberán contratar la póliza de responsabilidad civil correspondiente, entregando al principio de la temporada las copias de las mismas, a la Diputación Foral o a quien esta determine.

13. La responsabilidad de los actos del público en las instalaciones durante la celebración de competiciones y espectáculos recaerá sobre las entidades organizadoras. Para ello, tendrán que conocer el Plan de Autoprotección y deberán de acogerse a las obligaciones que en ella se recogen, sin perjuicio de la obligatoriedad de respetar la totalidad de la normativa sectorial vigente en cada momento.

14. Cualquier deterioro o rotura en las instalaciones que se origine de su uso, serán por cuenta de la persona o entidad que efectuó la reserva de utilización. En el caso de competiciones oficiales, estos daños serán comunicados a la Federación y Club correspondiente, siendo el club local el responsable subsidiario de los desperfectos que originen los equipos contrarios.

15. El personal técnico, y a falta de éste, las madres, padres o personal tutor deberán garantizar el buen comportamiento de las personas menores de edad, teniendo la responsabilidad y obligación de actuar en casos de malos tratos, bulling o acoso que se puedan dar.

16. Las entidades deportivas que cobren entrada para acceder a los encuentros deportivos deberán comunicarlo previamente a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la gestora de la instalación. Podrán hacer uso de las ventanillas de venta allí donde las hubiere, si bien será de su cuenta el personal para cobrar y realizar el control necesario para el buen funcionamiento del evento.

17. En situaciones especiales y extraordinarias que afecten al uso de la instalación, tales como obras, situaciones de emergencia, etc. que supongan la disminución parcial o total del horario de uso y apertura de la instalación, por causas fuerza mayor, las horas que quedasen disponibles, también se repartirán en base a los criterios detallados en este artículo.

Artículo 6. Persona usuaria no abonada.

Se considerará persona usuaria no abonada aquella que, previo pago del importe correspondiente, acceda a la instalación. Se le entregará un título habilitante que deberá conservar hasta la salida.

EK\CV GAO-I-2023-07554

7. artikulua. Ikastarogilea.

Ikastarogilea izango da eskaera inprimakia aurkeztuta, ikastaroan onartua izan dena eta kuoten ordainketan egunean dagoena.

8. artikulua. Ikusleak.

Ikusleen sarbidea jardueraren ezaugarrien araberakoa izango da, eta jarduera antolatzen duen erakundea izango da haien jokabidearen arduraduna.

9. artikulua. Erabiltzaile izaera galtzea.

1. Txuri-Urdin Izotz Jauregiaren erabiltzaile izateari uzteko arrazoi izan daiteke:

a) Deskribatutako jarduerak egiteko eskura jarritako instalazioak eta materialak behar bezala ez erabiltzea.

b) Erabilera arau hauetan xedatutakoa modu jarraitu eta agerikoan urratzea.

c) Instalazioak eta zerbitzuak baliatzeko ezarritako tarifak ez ordaintzea.

2. Artikulu honetan ezarritako kasuetan, beharrezkoa bada, instalaziotik botako da erabiltzailea eta aurrerantzean ez zaio berriz sartzen utziko.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Txuri-Urdin Izotz Jauregiaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Instalaziora sartzea zabalik dagoen egunetan eta ordutegietan.

b) Instalazioetan lan egiten dutenek eta gainerako langileek errespetuz eta begirunez tratatzea.

c) Txuri-Urdin Izotz Jauregiak eskaintzen dituen zerbitzu gutiak erabiltzea, araudiaren arabera.

d) Erabilera arau hauen ale bat eskuragarri izatea.

e) Zerbitzua eta arreta EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzea.

f) Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztea. Instalazioen kudeaketaren arduradunak erreklamazio orriak izan beharko ditu Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.

g) Abonatuek, beraientzat ezartzen diren prezio bereziak baliatzea.

h) Instalazioko edozein langileri identifikatzeko eskatzea, erreklamazioak egin ahal izateko.

i) Indarreko legerian (2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren Legea; 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legea) eta arau hauetan aitortutako beste edozein eskubide.

11. artikulua. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak.

Aurreko puntuan adierazitako eskubideez gain, erabiltzaile horiek eskubide hauek ere izango dituzte:

a) Instalazioetako langileei laguntza eskatzea instalazioetan barrena ibiltzeko zailtasunak dituztenean. Instalazioetakoa

Artículo 7. Personas cursillistas.

Se considerará cursillista aquella persona que, habiendo formalizado su inscripción mediante la presentación del impreso de solicitud, sea admitida al cursillo y se halle al corriente en el pago de las cuotas correspondientes.

Artículo 8. Personal espectador.

El acceso del personal espectador estará determinado por las características de la actividad, siendo la entidad organizadora de la actividad concreta la responsable de su comportamiento.

Artículo 9. Pérdida de la condición de persona usuaria.

1. Podrá ser causa de la pérdida de la condición de persona usuaria del Palacio del Hielo Txuri-Urdin:

a) La no utilización adecuada de las instalaciones y materiales puestos a su disposición para la práctica de las actividades descritas.

b) La transgresión continuada y manifiesta de lo dispuesto en las presentes Normas de Uso.

c) El impago de las tarifas establecidas para el uso y acceso a la instalación y sus servicios.

2. En los supuestos contemplados en este artículo, se procederá, si fuera necesario, a la expulsión de la instalación de la persona usuaria en cuestión y a impedir el acceso a la misma en sucesivas ocasiones.

CAPÍTULO II. DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 10. Derechos de la personas usuarias.

Serán derechos de las personas usuarias del Palacio de Hielo Txuri-Urdin:

a) Acceder a la instalación dentro de los horarios y en los días en que esté abiertas.

b) Ser tratados con respeto y deferencia por el personal que presta sus servicios con las instalaciones y por el resto de personal.

c) Utilizar, de acuerdo con la normativa, todos los servicios que oferte el Palacio del Hielo Txuri Urdin.

d) Tener a disposición un ejemplar de las presentes Normas de Uso.

e) Recibir el servicio y comunicarse en cualquiera de las lenguas oficiales de la CAPV.

f) Presentar quejas, sugerencias y reclamaciones. El o la responsable de la gestión de la instalación deberá poseer hojas de reclamaciones de conformidad con lo establecido en la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, del estatuto de las personas consumidoras y usuarias y normativa de desarrollo.

g) Disfrutar, las personas usuarias abonadas, de aquellos precios especiales que se establezcan.

h) Solicitar en cualquier momento la identificación de cualquiera de las y los trabajadores de la instalación, a los efectos de realizar las reclamaciones correspondientes.

i) Cualesquiera otros derechos que vengan reconocidos en la legislación vigente (Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco; Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas y demás normativa concordante) y en estas Normas de Uso.

Artículo 11. Derechos de la personas con diversidad funcional.

Ademas de los derechos señalados en el punto anterior se reconoce a estas personas usuarias el derecho a:

a) Solicitar acompañamiento del personal de las instalaciones en los casos en que encuentren dificultades para el de-

EK\CV GAO-I-2023-07554

ez den beste pertsona batekin datozenean, pertsona horrek ez du sarrera ordaindu beharko, betiere instalazioa ez badu kirolerako erabiltzen.

b) Dibertsitate funtzionala duten 16 urtetik gorako pertsonak, familiaren edo tutorearen etxebizitzan bizi badira, familia abonuaren barruan mantenduko dira.

12. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

a) Instalazioak erabiltzea arau hauetan ezarritakoaren eta Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak edo, horren izenean, Txuri-Urdin Izotz Jauregia kudeatzen duen entitateak ematen dituen jarraibideen arabera. Karteletan edo bestelako adierazleetan xedatutakoa errespetatu behar da, baita megafoniak adierazitakoa ere, zerbitzuarekin eta haren gorabeherekin lotutako gaiei dagokienez.

b) Instalazioak eta bertako ekipamendua behar bezala erabiltzea.

c) Instalazioetako langileei jakinaraztea funtzionamenduko akatsak, hausturak, gabeziak edo arau hauetan xedatutakoaren inguruko ez-betetzeak.

d) Gainerako erabiltzaileen eskubideak errespetatzea.

e) Instalazioetan behar bezala jokatzea, betiere langileen lana eta elkarbizitza erraztuta.

f) Instalazioetan behar bezala jokatzea, bai langileekin, bai gainerako erabiltzaileekin.

g) Txuri-Urdin izotz jauregiko instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko tarifak ordaintzea.

h) Txuri-Urdin izotz jauregiaren funtzionamendu ordutegiak errespetatzea, langileen jarraibideak kontuan hartuta.

i) Indarreko legerian edo arau hauetan ezarritako beste edozein betebehar.

III. KAPITULUA. KIROL INSTALAZIOA ERABILTZEKO ARAU KOMUNAK

13. artikulua. Kirol instalaziorako sarbidea.

Sarbidea kontrolatzen bada, erabiltzaileak eta taldeko arduradunak instalazioetan sartzeko aukera ematen duen titulua aurkeztu beharko dute eta, eskatzen dietenean, NANa edo identifikatzeko beste dokumentu ofizialen bat.

Tituluarekin arazoren bat badago edo hondatuta badago, instalazioko langileek erretiratu egingo dute, nahiz eta momentu horretan instalaziora sartzen utziko dieten. Debekatua dago instalazioetan animaliak sartzea, salbu eta burutuko den kirol jardueran animaliak erabiliko badira edo baimendutako egoera jakinak badira.

Kafetegiak araudi propioa ezarri ahal izango du lagun egiteko animalien inguruan, betiere indarreko araudia beteta.

Baimendutako lekuetan sartu ahal izango dute erabiltzaile itsuekin batera doazen zakur gidariek.

14. artikulua. Kirol instalazioak erabiltzeko arauak.

14.1. Ordutegia.

1. Txuri-Urdin Izotz Jauregia gutxienez ordutegi honetan egongo da zabalik:

* Irailaren 14tik maiatzaren 31ra (biak barne):

— Astelehenetik ostiralera, 06:45-00:00.

— Larunbat, igande eta jaiegunetan: 07:00-00:00.

senvolvimiento en la instalación. Cuando vengan acompañadas por otra persona ajena a las instalaciones, esta última no deberá abonar la entrada, siempre que no haga uso deportivo de la instalación.

b) Las personas con diversidad funcional, mayores de 16 años que vivan en el domicilio familiar o tutorial, se les mantendrá, en su caso, dentro del abono familiar.

Artículo 12. Obligaciones de las personas usuarias.

a) Utilizar las instalaciones conforme a lo dispuesto en estas Normas de Uso y a las instrucciones que dicte el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes o, en su nombre, la entidad gestora del Palacio del Hielo Txuri-Urdin. En todo se debe respetar lo dispuesto en los carteles u otros indicadores, así como lo comunicado por la megafonía, en aquellos temas relacionados con el servicio y sus incidencias.

b) Hacer un buen uso de las instalaciones y de su equipamiento.

c) Comunicar al personal empleado de las instalaciones las anomalías de funcionamiento, roturas, deficiencias o incumplimientos de lo dispuesto en las presentes Normas de Uso.

d) Respetar los derechos de otro personal usuario.

e) Comportarse correctamente en las instalaciones favoreciendo, en todo momento, la labor del personal empleado y la convivencia con otro personal.

f) Comportarse correctamente en las instalaciones tanto con el personal como con las restantes personas usuarias.

g) Abonar las tarifas que se exijan por la utilización de la instalación y de los servicios existentes en el Palacio del Hielo Txuri-Urdin.

h) Respetar los horarios de funcionamiento del Palacio del Hielo Txuri-Urdin atendiendo las indicaciones del personal empleado en este sentido.

i) Cualesquiera otras obligaciones que vengan establecidas en la legislación vigente o en las presentes Normas de Uso.

CAPÍTULO III. DE LAS NORMAS COMUNES DE UTILIZACIÓN DE LA INSTALACIÓN DEPORTIVA

Artículo 13. Acceso a la instalación deportiva.

Si existe un control de accesos, las personas usuarias o el o la responsable del grupo, en su caso, deberán presentar el título habilitante para el acceso a las instalaciones y cuando sea requerido, el DNI u otro documento oficial de identificación.

Si el título habilitante mostrado presenta algún problema o está deteriorado será retirado por el personal de la instalación aunque se permitirá el acceso en ese momento. Está prohibido el acceso de animales en las instalaciones salvo que la propia actividad deportiva que se vaya a desarrollar implique el empleo de animales o situaciones concretas debidamente autorizadas.

La cafetería podrá establecer su propia normativa en cuanto al acceso de animales compañía, cumpliendo siempre con la correspondiente normativa vigente.

Se permitirá el acceso a los lugares habilitados, a los perros-lazarillos que acompañen al personal usuario invidente en su deambulación habitual.

Artículo 14. Normas de uso de las instalaciones deportivas.

14.1. Horario.

1. El horario mínimo de apertura del Palacio del Hielo Txuri-Urdin será el siguiente:

* Del 14 septiembre al 31 de mayo (ambos inclusive):

— De lunes a viernes: de 06:45 a 24:00.

— Sabados, domingos y festivos: 07:00 a 24:00.

EK\CV GAO-I-2023-07554

Jardueren programazioa dela eta, ordutegia luzatu ahal izango da ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren inguruko indarreko legeriak ezarritako mugen baitan.

2. Aurreko puntuan adierazitako ordutegien baitan, kudeatzaileak zehaztuko ditu erabilera desberdinentzako tarte bereiziak: kirol klubak, entrenamenduak eta lehiaketak, saio publikoak, ikastetxeak, ikastaroak, etab.

3. Txuri-Urdin izotz jauregia itxita egon ahal izango da egun jakinetan. Era berean, urtean geldialdi tekniko bat egin ahal izango da; gutxienez hilabeteko aurrerapenarekin iragarri beharko da, erabiltzaile guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

4. Erabiltzaile kolektiboen kasuan, aldageletan sartu ahal izango dute ordua baino 20 minutu lehenago.

Aldez aurretik ezarrita badute ordutegia, ezin izango dute eskatu erabili ez duten denboraren ordaina luzatzeko; hala ere, denbora hori eman ahal izango da, hirugarrenei kalterik egiten ez bazaie.

14.2. Arropa eta ekipoa.

Kirol instalaziora sartu beharko da jardueraburutzeko arropa eta ekipo egokiekin; instalazioko langileek erabaki beharko dute zer diren arropa eta ekipo egokiak.

14.3. Beste arau batzuk.

Kirol instalazioetan ezin da erre, ezta tabernan ere. Ezin da jan edo kristalezko ontzirik sartu ere, tabernan izan ezik.

— Ezin da baloiekin, pilotekin edo bestelako objektuekin jolastu aldageletan, pistetara sartzeko korridoreetan, harmailetan eta kirol espaziotzat hartzen ez diren eremu guztietan.

— Debekatuta dago hirugarrenek kirol instalazioan zerbitzuak ematea, erakunde kudeatzaileak programatu edo baimendu ez badu.

15. artikulua. Alokairu zerbitzua (patinak...).

Instalazioan patinak eta babes materiala alokatzeko zerbitzua egongo da erabiltzaile guztientzat erabilgarri.

Segurtasun arrazoiak direla eta, derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea 12 urte arte, eta komenigarria erailtzaile guztientzat (ez da sarreran sartzen).

16. artikulua. Armairuen eta aldagelen zerbitzua.

a) Objektuak armairuetan eta aldageletan uztea ez dago inolako gordailu kontraturekin lotuta; hartara, objektu horiek zaintzea ez da instalazioen jabearen ardura izango.

b) Aldagelak eta armairuak erabili ahal izateko, kirol jarduera bat egin beharko da; hartara, jarduera bukatutakoan libre utzi beharko dira.

c) Instalazioa guztiz itxiko da aurrez ezarritako orduan; hartara, aldagelak erabili nahi dituenak instalazioa ixteko ordutegia baino lehen egin beharko du.

d) Eguna amaitutakoan aldagela eta armairuetatik jaso ez diren eta instalazioetako beste espazioren batean aurkitu diren objektuak horretarako berariaz ezarritako leku batean gordeko dira. Jabeek objektu horiek erreklamatzen ez badituzte aurkitu direnetik kontatzen hasita astebeteko epean, instalazioetako arduradunek Donostiako Udaltzaingoaren bulegoetan utziko dituzte.

e) Erabiltzaile kolektiboen kasuan, entrenatzaile, irakasle edo arduradunek egiaztatu beharko dituzte instalazioak bere taldeak eta aurkakoek alde egin aurretik eta ondotik, ziurtatzeko

Por razones de programación de actividades, el horario se podrá extender hasta los límites que permita la legislación vigente relativa a espectáculos públicos y actividades recreativas.

2. Dentro de los horarios indicados en el punto anterior, la entidad gestora señalará franjas diferenciadas para los distintos tipos de usos posibles: Clubes deportivos, entrenamientos y competición, sesiones públicas, centros escolares, cursos, etc.

3. El Palacio del Hielo Txuri-Urdin podrá permanecer cerrado en días señalados. Así mismo, se podrá disponer de una parada técnica anual, debiendo ser anunciada tal parada con, al menos, un mes de antelación, de forma que queden debidamente informado todo el personal usuario.

4. En el caso de personal usuario colectivo, se permitirá el acceso a los vestuarios con 20 minutos de antelación al horario fijado.

Cuando la utilización tenga un horario prefijado, no podrá exigirse la prolongación del tiempo no disfrutado, si bien podrá concederse ese tiempo si no se perjudica a terceras personas.

14.2. Indumentaria y equipo.

El acceso al espacio deportivo deberá realizarse con la indumentaria y los equipos adecuados a la actividad, corresponderá al personal de la instalación determinar la consideración de indumentaria y equipo adecuado.

14.3. Otras normas.

No está permitido fumar en las instalación deportiva, ni siquiera en la zona de bar. No se permite comer ni introducir envases de cristal salvo en la zona de bar.

— No está permitido jugar con balones, pelotas u otros objetos en vestuarios, pasillos de acceso a pistas, graderíos y todas aquellas zonas que no se consideren espacios deportivos.

— Queda prohibida la prestación de servicios por terceros en la instalación deportiva, si no está programado o autorizado por la entidad gestora.

Artículo 15. Servicio de alquiler (patines...).

La instalación tendrá un servicio de alquiler de material de patines y protectores para todo el personal usuario de la instalación.

Por motivos de seguridad es obligatorio el uso de casco hasta los 12 años y recomendable para todos los usuarios y usuarias (no incluido en la entrada).

Artículo 16. Servicio de taquillas y los vestuarios.

a) El depósito de los objetos en taquillas y vestuarios no está vinculado con ningún contrato de depósito por lo que la persona propietaria de la instalación no se hace responsable de la custodia de estos objetos.

b) La utilización de los vestuarios y de las taquillas está vinculada a la realización de una actividad deportiva concreta, por lo que una vez finalizada la misma, estos deberán quedar libres.

c) El cierre total de la instalación se llevará a cabo en el horario previamente fijado, por lo que, quien así lo desee, deberá acceder a los vestuarios previamente al horario de cierre de la instalación.

d) Los objetos no retirados de los vestuarios y de las taquillas al finalizar la jornada y los extraviados que se hallaren en otros lugares de la instalación se guardarán en algún lugar especialmente acondicionado al efecto. Cuando dichos objetos no sean reclamados por sus dueños en el plazo de una semana después del hallazgo, deberán ser depositados por los responsables de las instalaciones en las dependencias de la Guardia Municipal de Donostia-San Sebastián.

e) En el caso de usuarios colectivos, el personal técnico, profesorado o responsables de los grupos deberán de verificar el estado de las instalaciones antes y después de que se aban-

EK\CV GAO-I-2023-07554

ez dagoela kalterik. Anomaliaren bat aurkitzen badute, instalazioko langileei jakinarazi beharko diete. Oro har, adingabeen taldeen entrenatzaile, irakasle edo arduradunek aldageletan egon beharko dute taldekideak arropaz aldatzen diren bitartean, ziurtatzeko egoki portatzen ari direla.

17. artikulua. Taberna eta/edo kafetegi zerbitzua.

Zerbitzuaren titularrak arau hauek errespetatu eta errespetatu arazi beharko ditu instalazioetan.

IV. KAPITULUA. KEXAK, IRADOKIZUNAK, INFORMAZIO ESKAERAK ETA ERREKLAMAZIOAK

18. artikulua. Administrazioaren ondare erantzukizuna.

Oro har, Foru Aldundia ez da izango erabiltzaileek jasan ditzaketen lesioen erantzule, instalazioaren edo horri atxikitako ondasunen egoera txarraren ondorio zuzen direnean izan ezik, administrazio publikoen erantzukizunari buruzko araudiaren arabera.

Edonola ere, Aldundia ez da erantzule izango erabilzaileek arau hauek ez betetzearen, beste erabiltzaileren baten zabarkeriaren edo instalazio, ekipamendu eta zerbitzuak oker erabiltzearen ondorio diren kasuetan.

19. artikulua. Aldundiak kexak, iradokizunak eta informazio eskaerak izapidetzea.

Kexak, iradokizunak, erreklamazioak edo eskaerak aurkez daitezke foru titulartasuneko instalazioan edo indarreko legerian aurreikusitako lekuetan, bitarteko hauetakoren batean:

— Hitzez, instalazioko langileen aurrean; hasiera batean, ahal duten guztia egin beharko dute hori konpontzeko.

— Idatziz, kirol instalazioko erabiltzaileen eskura egongo den ereduan.

— Telefonoz, Txuri-Urdin instalazioaren arretarako telefonora deituta.

— Internet bidez, instalazioaren web orrian.

— Gipuzkoako Foru Aldundiak jar ditzakeen beste bide batzuen bidez.

Iradokizun, kexa, erreklamazio edo eskaeren kasuan, erantzuna jaso nahi bada, posta arrunteko edo posta elektronikoko helbide bat jarri behar da, interesdunarekin harremanetan jarri ahal izateko.

Eskaerak, iradokizunak edo kexak dokumentu erantsiak izan ditzake.

Herritarrei ahalik eta lasterren erantzungo zaie, gehienez ere hilabetean, eta haiek adierazitako helbidean jasoko dute erantzuna.

V. KAPITULUA. ZIGOR ARAUAK

20. artikulua. Ordena berrezartzeko neurriak.

Arau hauetan edo, horiek aplikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen departamentuak emandakoetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste administratibo zehagarriak izango da.

Instalazioetako langileek neurriak hartu ahal izango dituzte zerbitzuaren ordena eta funtzionamendua berrezartzeko; hala ere, egoki diren zehapenak jarri ahal izango dira. Kirol instalaziotik kanporatu ahal izango du jokabide hauetakoren bat duen erabiltzailea:

donen por su equipo y los equipos contrarios, comprobando que no existe ningún destrozo. Si se descubre alguna anomalía deberá de comunicarse al personal de la instalación. Como regla general, el personal técnico, profesorado o responsables de los grupos menores de edad deberán permanecer en los vestuarios mientras su equipo se cambia con el fin de controlar que el comportamiento es correcto.

Artículo 17. Servicio de bar y/o cafetería.

El titular de este servicio deberá respetar y hacer respetar en la instalación las presentes Normas de Uso en lo que le sea de aplicación.

CAPÍTULO IV. QUEJAS, SUGERENCIAS, SOLITUDES DE INFORMACIÓN Y RECLAMACIONES

Artículo 18. Responsabilidad patrimonial de la Administración.

Con carácter general la Diputación Foral no será responsable de las lesiones que puedan sufrir las personas usuarias salvo que deriven directamente del mal estado de la instalación o de los bienes adscritos a la misma de conformidad a la normativa sobre responsabilidad de las Administraciones Públicas.

En todo caso, la Diputación no se hará responsable en los casos de accidente o desperfectos derivados del incumplimiento por parte de las personas usuarias delas presentes Normas de Uso, de un comportamiento negligente de otra persona usuaria o de un mal uso de las instalaciones, equipamientos y servicios.

Artículo 19. Tramitación de las quejas, sugerencias, solicitudes de información por la Diputación.

Las quejas, sugerencias, reclamaciones o peticiones pueden plantearse en la instalación deportiva de titularidad foral y en los lugares previstos en la legislación vigente y por cualquiera de los siguientes medios:

— Verbalmente ante el personal de la instalación, quien deberá en primera instancia hacer todo lo posible por solucionarla.

— Por escrito, en el modelo que se encontrará a disposición del personal usuario en la instalación deportiva.

— Por teléfono, llamando al teléfono de atención de la instalacion Txuri-Urdin.

— A través de internet, en la página web de la instalación.

— Mediante otras vías que, en su caso, habilite la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso de las sugerencias, quejas, reclamaciones, o peticiones, si se desea contestación, es necesario introducir, una dirección postal o e-mail para contactar con la o el interesado que la presenta.

La petición, sugerencia o queja podrá incluir documentos anexos.

Se contestará a la ciudadanía en el plazo más breve posible que será de un mes como máximo y se notificará en la dirección señalada por la ciudadanía para ello.

CAPÍTULO V. RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 20. Medidas para restablecer el orden.

El incumplimiento de lo dispuesto en las presentes Normas de Uso o en las instrucciones que, en orden a su aplicación, dicte el Departamento competente en materia de deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, constituye infracción administrativa sancionable.

El personal de las instalaciones podrá adoptar medidas para restablecer el orden y funcionamiento del servicio, sin perjuicio de las sanciones que procedan. Podrá proceder a expulsar de una instalación deportiva al personal usuario que incurran en alguna de las siguientes conductas:

EK\CV GAO-I-2023-07554

a) Arau hauetan instalazioen erabileraren inguruan ezarritakoren bat urratzea. Ildo horretan, momentuan bertan baloratuko da zer gertatu den, kontuan izanda urraketaren larritasuna, arau-hauste horri uzteko egindako ohartarazpenei kasurik ez egin izana, beste erabiltzaile bati eragindako ageriko kaltea, berrerortzea izatea, eta antzeko egoerak.

b) Sartzeko titulu baliozkorik ez izatea, instalazioren bat erabiltzea erreserbarik gabe, erreserba nahitaezkoa izanda.

c) Elkarbizitza sozialaren, higienearen edo gizartearen aurkako beste jokabide batzuen aurkako ekintzak egitea.

d) Kirola horretarako eremuan ez egiten ikustea edo froga nabarmena izatea.

e) Kirol txartela edo titulua erabiltzea titularra ez den norbaitek. Erabiltzailea kanporatzearekin batera, sartzeko erabili duen txartela kenduko zaio.

21. artikulua. Arau-hausteak.

2.1. Arau-hausteak izan daitezke arinak, larriak edo oso larriak.

1. Arau-hauste arinak izango dira hauek:

a) Instalazioak erabiltzea txartelik gabe edo erabiltzeko baimena ematen duen agiririk gabe.

b) Instalazioetan erretzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

c) Armairuak kirol-jarduerak ez diren beste erabilera batzuetarako erabiltzea, eta armairua libre ez uztea kirol-jarduerak amaitutakoan.

d) Instalazioetara oinetako edo jantzi desegokiekin sartzea.

e) Instalazioetako langileei ez jakinaraztea antzemandako funtzionamenduko anomaliak, hausturak, gabeziak edo arauen ez-betetzeak. Entrenatzailea, irakaslea, begiralea edo taldearen ordezkaria izango da anomalia horien berri ematearen arduradun.

f) Instalazioen erreserba ez ordaintzea, erreserba eskaeran ez adierazi izana erreserba ez onartzea eragingo luketen funtsezko datuak edo erreserba lortzeko beharrezko ezaugarriak adierazi izana, eduki gabe; erreserbatutako instalazioa erabiltzea arau hauetan ezarritakoaz bestelako helburuetarako edo behin eta berriz ez egotea, justifikatutako arrazoirik gabe, erreserbatutako instalazioan.

g) Falta astunen egintza berberak, baina 21.2 artikuluko irizpideak haztatuta maila arinean gertatu direnean.

h) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementuak hondatzea (higigarriak nahiz higiezinak), konponketaren kostua 1 eta 600 euro artekoa denean.

2. Arau-hauste larriak izango dira hauek:

a) Erabiltzaileak gaizki tratatzea, edo elkarbizitza nabarmen oztopatzea, oso larritzat jotzeko egoerarik gertatzen ez denean.

b) Kirol instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeko aukera eragoztea horretarako eskubidea duten beste erabiltzaile batzuei, oso larritzat jotzen ez denean.

c) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementuak hondatzea (higigarriak nahiz higiezinak), konponketaren kostua 600 eta 1.500 euro artekoa denean.

d) Instalazioak behin eta berriz erabiltzea horretarako gaitzen duen txartelik edo dokumenturik gabe, edo beste erabiltzaile baten txartelarekin pasatzea.

a) Cualquier infracción de las normas que se contienen en estas Normas de Uso y que se refieran a la utilización de las instalaciones. En tal sentido, se valorará en el acto la situación concurrente, teniendo en cuenta circunstancias como la gravedad de la falta, el caso omiso a las advertencias para que se elimine esa infracción, el prejuicio manifiesto a otro personal usuario, reincidencia conocida, y otras de similar índole.

b) La no posesión de título válido de acceso, incluyendo la utilización de una instalación sin previa reserva, cuando ésta sea obligatoria.

c) Realizar actos contrarios a la convivencia social, higiene u otras conductas antisociales.

d) La demostración o prueba ostensible de no practicar el deporte en zona destinada a ello.

e) La utilización del carnet deportivo o título habilitante sin ser titular del mismo. La expulsión de la persona usuaria, en este caso irá acompañada de la retirada del carnet del titular utilizado para acceder.

Artículo 21. Infracciones.

2.1. Las infracciones que puedan producirse se clasifican en leves, graves y muy graves.

1. Se considerarán infracciones leves las infracciones que supongan:

a) El utilizar las instalaciones sin carné o documento que habilite al uso.

b) Fumar en las instalaciones, conforme a la normativa vigente.

c) Utilizar las taquillas para usos que no sean la práctica deportiva y no dejar libre la taquilla al finalizar las actividades deportivas.

d) Acceder a las instalaciones con calzado o vestuario inapropiado.

e) No comunicar al personal de las instalaciones las anomalías de funcionamiento, roturas, deficiencias o incumplimiento de las Normas de Uso sean detectadas. El personal técnico, profesorado, monitorado o cualquier personal que represente un grupo será el o la responsable de informar sobre estas anomalías.

f) No abonar la reserva de las instalaciones, haber omitido datos esenciales en la solicitud de reserva que hubiesen dado lugar a la no concesión o haberse atribuido características necesarias para proceder a ello, la utilización de la instalación reservada para fines distintos de los contemplados en estas Normas de Uso o la ausencia reiterada y no justificada en la instalación reservada.

g) Los mismos actos que las faltas graves pero cuando se produzcan en su grado leve por la ponderación de los criterios del 21.2.

h) Los actos de deterioro de equipamientos, infraestructuras, instalaciones y elementos, sean muebles o inmuebles cuando el costo de su reparación sea por cuantía entre 600 y 1 euros.

2. Se considerarán infracciones graves las infracciones que supongan:

a) El maltrato al personal usuario de las instalaciones, o cualquier otra perturbación relevante de la convivencia cuando no concurran las circunstancias para calificarlas de muy graves.

b) El impedir el uso de las instalaciones o de los servicios deportivos a otro personal usuario con derecho a su utilización cuando no se considere muy grave.

c) Los actos de deterioro de equipamientos, infraestructuras, instalaciones y elementos, sean muebles o inmuebles cuando el costo de su reparación sea por cuantía entre 1.500 y 600 euros.

d) El utilizar las instalaciones sin carné o documento que habilite al uso, de forma reiterada, o pasar con el carné de otro personal usuario.

EK\CV GAO-I-2023-07554

e) Ez ordaintzea instalazioak erabiltzeagatik eta zerbitzuengatik ordaindu beharreko tarifak.

f) Arau hauetan debekatutako animaliak edo bestelako elementuak sartzea.

g) Instalaziotik ez alde egitea erreserbako denbora amaitutakoan, eta beste kirolari batzuei beren eskubidea baliatzea eragoztea, urraketa arina denean izan ezik.

h) Instalazioak zikintzea, larria denean.

i) Txuri-Urdin Izotz Jauregia kudeatzen duen erakundeak emandako aginduak eta jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.

j) Hiru hutsegite arin edo gehiago egitea.

k) Falta oso larrien egintza berberak, baina 21.2 artikuluko irizpideak aplikatuta haztatzen direnean.

3. Arau-hauste oso larriak izango dira hauek:

a) Langileak edo erabiltzaileak gaizki tratatzea, edo elkarbizitza nabarmen oztopatzea, instalazioetako lasaitasunean larriki, berehala eta zuzenean eragiten duenean. Instalazioetako erabiltzaile adingabeekin edo dibertsitate funtzionala dutenekin tratu txarrak edo indarkeria erabiltzea beti izango da oso larria.

b) Instalazioan alarma faltsuak edo erreboltak eragitea.

c) Kirol instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeko aukera eragoztea horretarako eskubidea duten beste erabiltzaile batzuei. Oso larritzat joko da adingabeei edo dibertsitate funtzionala duten pertsonei eragiten badie edo indarkeria erabiltzen bada.

d) Beste erabiltzaile batzuei eragoztea arau hauetan nahiz aplikatu beharreko gainerako arau juridikoetan esleitutako edozein eskubide legitimo baliatzen.

e) Zerbitzu publikoaren funtzionamendu normala eragoztea edo larriki oztopatzea.

f) Ekipamendu, azpiegitura, instalazio eta elementuak –higigarri nahiz higiezinak– larriki hondatzea. Oso larritzat jotzen dira konponketaren kostua 1.500,1 eurotik gorakoa denean.

g) Larrialdi eta Ebakuazio Planerako beharrezkoak diren elementuak lapurtu, suntsitu edo kaltetzea: alarmak, fitxak, txalekoak, su-itzalgailuak eta kartelak...

h) Segurtasun araudia ez betetzea.

i) Zigor Kodearen 368. artikuluan aurreikusitako substantziak (droga toxikoak, estupefazienteak edo substantzia psikotropikoak) kontsumitzea edo trafikatzea instalazioetan nahiz instalazio eratxikietan.

j) Besteren ondasunak legez kontra hartzen harrapatzea.

k) Larritzat jo daitezkeen jazarpen fisiko, moral edo sexualeko jarrerak hartzea.

l) Aurreko puntuan deskribatutako jokabideak birritan izatea.

m) Abonatuaren titulua saltzea.

n) Modu pribatiboan lagatako lokalak edo materialak edo areto edo espazio komunak arau hauetan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.

21.2. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, irizpide hauen arabera:

a) Beste pertsona batzuen eskubideen erabilera baketsuan edo lasaitasunean edo jardueretan eragindako nahasmenduaren intentsitatea.

b) Osasungarritasunari eta apaingarri publikoei eragindako nahasmenduaren intentsitatea.

e) El impago de las tarifas exigibles por la utilización de las instalaciones y la prestación de servicios.

f) Introducir animales o otros elementos prohibidos por las presentes Normas de Uso.

g) No abandonar la instalación transcurrido el tiempo de reserva, impidiendo el derecho de otros u otras deportistas salvo que tenga carácter leve.

h) Ensuciar las Instalaciones cuando tenga carácter grave.

i) La reiterada desobediencia a las órdenes e instrucciones que dicte la entidad gestora del Palacio del Hielo Txuri-Urdin.

j) La comisión de tres o mas faltas leves.

k) Los mismos actos que las faltas muy graves pero cuando se ponderen con la aplicación de los criterios del artículo 21.2.

3. Se considerarán infracciones muy graves las infracciones que supongan:

a) El maltrato al personal de las instalaciones o usuario, o cualquier otra perturbación relevante de la convivencia que afecte de manera grave, inmediata y directa a la tranquilidad de las Instalaciones. El maltrato o utilización de la violencia a personal usuario de las Instalaciones que sean menores de edad o con diversidad funcional tendrá siempre consideración de muy grave.

b) Provocar alarmas falsas o revueltas en la instalación.

c) El impedir el uso de las instalaciones o de los servicios deportivos, a otro personal usuario con derecho a su utilización. Se considera muy grave siempre que afecte a menores de edad o personas con diversidad funcional o se utilice la violencia.

d) El impedir el ejercicio de derechos legítimos a otro personal usuario, tanto de los que les atribuye estas Normas de Uso como cualquier otra norma jurídica de aplicación.

e) El impedimento o la grave y relevante obstrucción al normal funcionamiento del servicio público.

f) Los actos de deterioro grave o relevante de equipamientos, infraestructuras, instalaciones y elementos, sean muebles o inmuebles. Se consideran muy graves cuando el costo de su reparación es superior a 1.500,1 euros.

g) Los robos, destrozos o cualquier desperfecto que se realice sobre los elementos necesarios para el Plan de emergencia y evacuación: Alarmas, fichas, chalecos, extintores y carteles...

h) El incumplimiento de la normativa de seguridad.

i) Consuman o trafiquen con las sustancias previstas en el artículo 368 del Código Penal (drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas) dentro del recinto de las instalaciones e instalaciones anejas.

j) Sean sorprendidos apoderándose ilícitamente de bienes ajenos.

k) Adopten actitudes de acoso físico, moral o sexual que puedan ser calificados como graves.

l) Sean reiterativas de las conductas descritas en el punto anterior.

m) Comercien con el título de personal abonado.

n) La utilización de los locales o materiales privativamente cedidos o de las salas o espacios comunes para fines distintos de los previstos en estas Normas de Uso.

21.2. Las infracciones se clasificarán en leves, graves o muy graves, de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Intensidad de la perturbación ocasionada en la tranquilidad o en el pacífico ejercicio de los derechos de otras personas o actividades.

b) La intensidad de la perturbación causada a la salubridad u ornato públicos.

EK\CV GAO-I-2023-07554

c) Zerbitzu edo espazio publiko bat erabiltzeko eskubidea duten pertsonei erabilera horretan eragin zaien nahasmenduaren intentsitatea.

d) Zerbitzu publikoaren ohiko funtzionamenduaren eragin den nahasmenduan intentsitatea.

e) Ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo zerbitzu elementuetan eragindako kalteen intentsitatea.

f) Intentzionalitatea, zabarkeria-maila, pertsonen osasunerako eta segurtasunerako arriskua, eta berrerortzea.

22. artikulua. Zehapenak.

1. Zehatzeko ahalaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, arau-hauste arinei zehapen hauetako bat edo batzuk aplikatuko zaizkie:

— 50 eta 750 euro arteko isuna.

— Instalazioetatik kanporatzea, egun batetik bi astera arteko eperako.

2. Falta larriei zehapen hauetako bat edo batzuk aplikatuko zaizkie, zehatzeko ahala arautzen duen araudiaren arabera:

— 750,01 eta 1.500 euro arteko isuna.

— Erabiltzailearen eskubideez eta instalazioak erabiltzeko aukeraz gabetzea sei hilabetetik urtebetera arteko eperako.

3. Falta oso larriei zehapen hauetako bat edo batzuk aplikatuko zaizkie, zehatzeko ahala arautzen duen araudiaren arabera:

— 1.500,01 eta 3.000 euro arteko isuna.

— Erabiltzailearen eskubideez eta instalazioak erabiltzeko aukeraz gabetzea urtebetetik bost urtera arteko eperako.

4. Aurreko artikuluan ezarritako egitateengatik ezar daitezkeen zigorrez gain, araua urratu duenak ondasunak lehengo egoerara itzuli beharko ditu, eragindako kalte eta galeren ordain emanda; zenbateko hori zehapen espedientean finkatuko da.

23. artikulua. Zehapen espedienteak izapidetzea.

Foru Aldundiko organo eskudunak kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu diruzko edo eskubideak galtzeko zehapenak ezartzeko, aurrez tipifikatutako ekipamenduen funtzionamendu egokiaren aurkako jokabideengatik.

Instalazioak zeharka kudeatzen direnean, enpresa kudeatzaileak organo eskudunari txostena bidali beharko dio, jasota gertatutakoaren data, ordua, azalpen zehatza eta eragileak (harremanetarako datuak barne), horrek zehapen espedientea abian jarri eta ebatz dezan.

Zehapen espedienteak eta horiei dagozkien kautelazko neurriak izapidetuko dira administrazio publikoen zehatzeko gaitasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

II. TITULUA

KIROL INSTALAZIOA ERABILTZEKO ARAU ESPEZIFIKOAK

1. KAPITULUA. IZOTZ-PISTA ERABILTZEKO ARAUAK

24. artikulua. Izotz-pista erabiltzeko arauak.

Instalazio hau erabiliko da, gehien bat, izotzaren inguruko kirol modalitateetan aritzeko (irristaketa, hockeya, curlinga, abiadura lehiaketak, etab.).

c) La intensidad de la perturbación ocasionada en el uso de un servicio o de un espacio público por parte de las personas con derecho o utilizarlos.

d) La intensidad de la perturbación en el normal funcionamiento del servicio público.

e) La intensidad de los daños ocasionados en los equipamientos, infraestructuras, instalaciones o elementos del servicio.

f) Intencionalidad, grado de negligencia, riesgo para la salud y seguridad de las personas, y reincidencia.

Artículo 22. Sanciones.

1. De acuerdo con la normativa reguladora vigente en materia de potestad sancionadora, a las infracciones leves se les aplicará una o varias de las sanciones siguientes:

— Multa de 50 a 750 euros.

— Expulsión de las instalaciones de un día a dos semanas.

2. A las faltas graves se les aplicará una o varias de las sanciones siguientes, de conformidad con la normativa reguladora de la potestad sancionadora:

— Multa de 750,01 a 1.500 euros.

— Privación de los derechos de la persona usuaria y de la utilización de las instalaciones de seis meses a un año.

3. A las faltas muy graves se les aplicará una o varias de las sanciones siguientes, de conformidad con la normativa reguladora de la potestad sancionadora:

— Una sanción de multa de 1.500,01 a 3.000 euros.

— Privación de los derechos de usuaria o usuario y de la utilización de las instalaciones de un año a cinco años.

4. Con independencia de las sanciones que puedan imponerse por los hechos tipificados en el artículo anterior, el o la infractora estará obligada a la restitución y reposición de los bienes a su estado anterior, con la indemnización de los daños y perjuicios causados cuya cuantía será fijada en la resolución del expediente sancionador.

Artículo 23. Tramitación de los expedientes sancionadores.

El órgano competente de la Diputación Foral podrá adoptar medidas cautelares e imponer sanciones pecuniarias o de pérdida de derechos por los comportamientos contrarios al correcto funcionamiento de los equipamientos anteriormente tipificados.

Cuando las instalaciones sean gestionadas indirectamente, la empresa gestora deberá elevar informe, en el cual se detallen la fecha, la hora, la explicación detallada, causantes (incluidos los datos de contacto) sobre los hechos acontecidos al órgano competente para la incoación y resolución del correspondiente expediente sancionador.

Los expedientes sancionadores y las medidas cautelares correspondientes se tramitarán de conformidad con la normativa vigente en materia de potestad sancionadora de las Administraciones Públicas.

TÍTULO II

DE LAS NORMAS DE UTILIZACIÓN ESPECÍFICAS DE LA INSTALACIÓN DEPORTIVA

CAPÍTULO 1. NORMAS DE UTILIZACIÓN DE LA PISTA DE HIELO

Artículo 24. Normas de utilización de la pista de hielo.

La utilización de esta instalación está dirigida fundamentalmente a la práctica de las modalidades deportivas relacionadas con el hielo (patinaje, hockey, curling, carreras de velocidad, etc.).

EK\CV GAO-I-2023-07554

Instalazioa erabili ahal izango dute horretarako ezarritako prezioak ordaintzen dituztenek. Instalazioa erabili nahi duten klub edo elkarteek erreserbetarako ezarritako araudiaren arabera eskatu beharko dute.

25. artikulua. Izotz-pista erabiltzeko arau orokorrak.

* Nahitaezkoa da:

— Denboraldiko abonua edo eguneko sarrera izatea izotz-pistan sartu ahal izateko.

— Pistako arduradunaren oharrak jarraitzea beti.

— Gainerako patinatzaileak errespetatzea, enbarazurik ez egitea, ez bultzatzea. Hirugarren batek istripuren bat eraginez gero, hark erantzun beharko du eragindako kalteengatik.

— Komeni da babes eskularruak, galtza luzeak eta mahuka luzeko jertseak erabiltzea.

— Galtzerdiak erabiltzea patinak alokatzean.

— Babes kaskoa erabilitzea 12 urte bete arte, eta, higiene arrazoiengatik, kaskoa alokatzean emango zaien txanoa erabiltzea.

* Ezin da:

— Ezingo dute instalazioan sartu 12 urtetik beherakoek, adinez nagusiren batekin ez badoaz.

— Bi patinatzaile baino gehiagoko katerik egin.

— Abiadura lasterketak edo gainerako patinatzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen jauziak egin.

— Pistan pilotak, baloiak, stickak edo bestelakoak sartzea.

— Pistan jatea edo edatea, horretarako prestatutako guneetan izan ezik.

— Pistako arduradunek adierazitako noranzkoaren kontra joatea.

— Seinaleztatutako sarbide mugatuko eremuetan patinatzea.

— Izotza patinekin kolpatzea, elur-bolak egitea edo jaurtitzea.

— Materiala gaizki erabiltzea esparru osoan (aldagelak eta beste edozein gela barne).

* Erabiltzeko eta gozatzeko arauak:

— Zentroak ez du bere gain hartuko patinatzaileen gauzak galdu edo desagertu izana.

— Ez gainditu segurtasunez menderatzeko dezakezun abiadura.

— Bezero guztiek dute arau horiek betearazteko eskubidea, instalazioaren arduradunen bitartez.

— Instalazioaren edukiera beteta badago, instalazioan patinatzaile gehiago sartzeko aukera mugatu ahal izango da.

— Instalazioko langileek erabakiko dute, izotzaren egoeraren arabera, saio publikoan makina pasatzea komeni den ala ez.

— Haurrak izango dira 12 urte artekoak (12 urte barne).

— Deskontuak baliatu ahal izateko, eskubide hori egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu behar dira.

2. KAPITULUA. KLUBEN EGOITZAK, BILTEGIAK, ARETOAK ETA ZERBITZU KOMUNAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. ATALA. Kluben egoitzak

26. artikulua.

Izotz kiroletako klubek lokal bat izan ahalko dute; haiek jarri beharko dituzte altzariak eta euren ardura izango da ondo erabiltzea eta hondatutakoa berritzea.

Pueden usar dicha instalación las personas que abonen los precios establecidos para su utilización. Los clubes o asociaciones que deseen utilizar la instalación deberán solicitarlo de acuerdo a la normativa establecida para las reservas.

Artículo 25. Normas de uso general de la pista de hielo.

* Es obligatorio:

— Disponer de abono de temporada o entrada de día para acceder a la pista de hielo.

— En todo momento se seguirán las indicaciones del monitorado responsable de pista.

— Respetar a otras y otros patinadores, no molestar ni empujar. Ante cualquier accidente producido por cualquier tercero, éste deberá responder por los daños causados.

— Es recomendable el uso de guantes protectores, pantalones largos y jerseys de manga larga.

— El uso de calcetines al alquilar patines.

— El uso de casco protector hasta los 12 años y, por razones de higiene, del gorro que le será entregado al alquilar dicho casco.

* No esta permitido:

— No podrán acceder a la instalación los y las menores de 12 años que no vayan acompañados de una persona mayor de edad.

— Hacer cadenas de más de dos patinadores.

— Hacer carreras de velocidad, ni saltos con riesgos para otros y otras patinadores.

— Introducir en la pista pelotas, balones, sticks, etc.

— Comer, ni beber en la pista, salvo en las zonas habilitadas al efecto.

— Ir en sentido contrario al señalado por el personal responsable de Pista.

— Patinar por las zonas de acceso restringido señalizadas.

— Golpear el hielo con los patines, ni hacer ni lanzar bolas de nieve.

— Hacer mal uso del material en todo el recinto (incluido vestuarios y cualquier otra dependencia).

* Normas de uso y disfrute:

— El centro no se hará cargo de la pérdida o desaparición de pertenencias del personal patinador.

— No exceda de la velocidad que domina con seguridad.

— Toda la clientela tiene derecho a hacer cumplir estas normas a través del personal responsable de la instalación.

— En el caso de que el aforo de la instalación se complete, se podrá limitar el acceso a la instalación de más patinadores.

— El personal de la instalación decidirá en función del estado del hielo la conveniencia o no de realizar un pase de maquina en la sesión publica.

— Se considera Infantil hasta los 12 años, incluido.

— Para poder beneficiarse de los descuentos correspondientes es necesario presentar la documentación acreditativa.

CAPÍTULO 2. NORMAS DE UTILIZACIÓN LAS SEDES DE LOS CLUBES, ZONA DE ALMACENES, SALAS Y SERVICIOS COMUNES

SECCIÓN 1.ª Sedes de los clubes

Artículo 26.

Los clubes deportivos de hielo podrán disponer de un local al que dotarán del mobiliario necesario y de cuya conservación, correcto uso y reposición serán responsables.

EK\CV GAO-I-2023-07554

Lokala erabiltzen duen kluba desegiten bada, altzari horiek jauregiaren ondarera pasako dira. Lokala erabiltzearen ondoriozko gastuak (garbiketa, argia, berokuntza, telefonoa, etab.) klub bakoitzaren konturakoak izango dira.

Adierazitako modalitateetako klub berriak sortuz gero, klub horiek lokal bakarra partekatu beharko dute, eta denen artean jarri beharko dituzte altzariak. Gaur egun dauden klubentzat adierazitako erabilera baldintza berberak izango dituzte.

27. artikulua.

Klub bakoitzak espazio bat eduki ahal izango du harmaila nagusiaren aurkakoan (klimatizazioko instalazioen eremuan), bere kontura kaiola bat edo gehiago jartzeko, patinatzaileek eta jokalariek erabiltzen duten materiala jasotzeko. Espazio horiek beti txukun egon beharko dute, eta horietarako sarbideak eta pasabideak libre egongo dira.

28. artikulua.

Klubek egoki deritzoten ekipamendua eta bulegoko materiala eduki ahal izango dute; alabaina, ezingo dute aldaketarik egin lokaletako egituran aurrez Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen departamentuaren baimenik lortu gabe.

29. artikulua.

Kluben esku jartzen diren lokal eta materialak soilik erabili ahal izango dira kirol esparruko jarduerak burutzeko.

30. artikulua.

Lokal bakoitzaren mantenu txikiaren ingurukoa ez den edozein matxura, haustura edo hondatze (klubaren kontura izango da), idatziz jakinarazi beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen departamentuari, ahalik eta lasterren konpon dezan.

31. artikulua.

Klub bakoitza arduratuko da bere diziplinako pertsonek errespeta ditzaten Txuri-Urdin Izotz Jauregia kudeatzen duen entitateak, instalazioak ahalik eta ondoen funtziona dezan eta Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen departamentuarekin adostuta, ezarritako jarraibideak.

2. ATALA. Prentsa aretoak eta agintarien aretoak

32. artikulua.

Prentsaren eta agintarien aretoa kudeatuko du jauregiaren emakida duen erakundeak eta hori erabiltzeko eskaerak aurkeztu beharko dira 48 ordu lehenago, gutxienez.

3. ATALA. Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

33. artikulua.

Garbiketako eta mantenuko zerbitzuak emango ditu jauregia kudeatzen duen entitateak, kontratuaren pleguetan ezarritakoaren arabera.

4. ATALA. Atezaintzako eta jendaurreko arretako zerbitzuak

34. artikulua.

Kirol instalazioa kudeatzen duen entitatearen ardura izango da sarrera komuna kontrolatzea, zabaltzea eta ixtea, kontratuaren pleguetan ezarritako baldintzen arabera.

Kudeatzailea arduratuko da jendeari arreta eta informazioa emateaz, taldeei harrera egiteaz eta megafonia sistema erabiltzeaz.

Este mobiliario pasará al patrimonio del palacio en el caso de disolución del club usuario del local. Los gastos derivados del uso del local (limpieza, luz, calefacción, teléfono, etc.) serán por cuenta de cada club.

En el caso de que se crearan nuevos clubes de las modalidades señaladas, los mismos deberán compartir un local al que dotarán en común del mobiliario correspondiente, siendo las condiciones de uso las mismas que las señaladas para los clubes existentes en la actualidad.

Artículo 27.

Cada club podrá disponer de un espacio sito en la grada contraria a la principal (zona de las instalaciones de climatización) para colocar, a su cuenta, una o más jaulas para el almacenamiento de material de uso de las y los patinadores y jugadores. Dichos espacios deberán estar ordenados en todo momento, y los accesos y zonas de paso estarán despejadas.

Artículo 28.

Los clubes podrán disponer del equipamiento y material de oficina propio que consideren oportuno, no pudiendo introducir modificaciones de estructura en los locales sin autorización previa del Departamento competente en materia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 29.

Los locales y materiales que se pongan a disposición de los clubes sólo podrán ser utilizados para la realización de aquellas actividades propias del ámbito deportivo.

Artículo 30.

Cualquier avería, rotura, desperfecto, etc. no referido al pequeño mantenimiento de cada local (que será por cuenta del club), deberá comunicarse por escrito al Departamento competente en materia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a fin de que sea resuelta a la mayor brevedad posible.

Artículo 31.

Cada club velará por que las instrucciones que la entidad gestora del Palacio del Hielo Txuri-Urdin dicte en orden al mejor servicio de la instalación, de conformidad con lo que al respecto acuerde Departamento competente en materia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sean respetadas por las personas vinculadas a su disciplina.

SECCIÓN 2.ª Salas de prensa y de autoridades

Artículo 32.

La sala de prensa y autoridades será gestionada por la entidad concesionaria del palacio y su uso será solicitado con, al menos, 48 horas de antelación.

SECCIÓN 3.ª Servicios de limpieza y mantenimiento

Artículo 33.

Los servicios de limpieza y mantenimiento serán prestados por la entidad gestora del palacio, atendiendo a las exigencias contenidas en los pliegos del contrato.

SECCIÓN 4.ª Servicios de conserjería y atención al público

Artículo 34.

El control del acceso común y su apertura y cierre será responsabilidad de la entidad gestora de la instalación deportiva, conforme a las exigencias contenidas en los pliegos del contrato.

Se encargará también de atender e informar al público, de la recepción de grupos y del manejo del sistema de megafonía.

EK\CV GAO-I-2023-07554

Megafonia erabiltzen bada kluben lehiaketako jardueretarako, talde bakoitzak, kudeatzailearekin adostuta, pertsona bat izendatu ahal izango du sistemaz arduratzeko (klubaren kontura), eta kluba izango da sistema ondo erabiltzearen eta apurtzen edo hondatzen bada konpontzeko edo kalte-ordaina emateko betebeharraren arduradun.

5. ATALA. Ataria

35. artikulua.

Klubek jauregira sartzeko ataria erabili ahal izango dute lehiaketako jarduerak egiten direnean beren jarduerari buruzko informazioa emateko edo bazkideak edo babesleak erakartzeko panelak jartzeko. Ezingo dira kudeatzaileak jarritakoen gainean jarri, eta ekitaldia amaitutakoan kendu egin beharko dira.

6. ATALA. Aldagelak

36. artikulua.

Txuri-Urdin Izotz Jauregia kudeatzen duen entitateak koordinatuko du instalazioko aldagelen erabilera.

7. ATALA. Kafetegia

37. artikulua.

Kafetegi-jatetxea erabiliko da ostalaritzako establezimenduei buruzko indarreko araudiaren arabera. Edonola ere, patinekin sartu ahal izango da horretarako gaitutako eremuan.

III. TITULUA

IKASTAROAK

38. artikulua. Aplikazio eremua.

Titulu honetan ezarritakoa aplikatuko zaie kirol instalazioaren kudeatzaileak antolatutako ikastaroei.

39. artikulua. Izena emateko prozesua.

Denboraldi bakoitzaren hasieran ezarriko dira ikastaroetan izena emateko fase bakoitzerako egunak, ordutegiak eta prozedura.

Prozesu hori printzipio hauek errespetatuz egingo da:

— Publizitatea. Prozesu guztia publikoa izango da, eta telefonoz zein web orrian kontsultatu ahal izango da. Zabalkunde berezia emango zaie behin-behineko eta behin betiko izena emateko datei.

— Aldez aurreko ordainketa: izen ematea baliozkoa izan dadin, plaza eskuratu dutenek ordaindu beharko dute ikastaroaren prezio osoa edo zati bat, ezarritakoaren arabera, denboraldi bakoitzerako ezarritako data baino lehen. Epe hori igarotzerako ez bada ordainketa egin, eskera horri baja emango zaio eta plaza libre geratuko da itxarote-zerrendako hurrengo pertsonak okupa dezan (inor baldin badago).

40. artikulua. Deuseztatzeak eta eteteak.

Matrikularen zenbatekoa ez da itzuliko, salbu eta matrikularen itzulketa eskatzen bada ikastaroa hasi baino zazpi egun lehenago, gutxienez.

Monitorea aldatzeak ez du eragingo matrikularen dirua itzultzea.

Ezinbestekoagatik ikastaroren bat eteten denean, deuseztatu den ikastaro zatiaren zati proportzionala itzuliko da.

En el caso del uso de la megafonía para actividades de competición propia de los clubes, cada uno de ellos podrá designar, de común acuerdo con la entidad gestora, la persona que atenderá el sistema por cuenta del club, siendo el club responsable de su buen uso y de la obligación de reposición o indemnización en caso de roturas o desperfectos.

SECCIÓN 5.ª Vestíbulo

Artículo 35.

El vestíbulo de acceso al palacio podrá ser utilizado por los clubes usuarios durante el transcurso de las actividades de competición para la colocación de paneles informativos sobre sus actividades o destinados a la captación de socios y/o patrocinadores. Los mismos no podrán ser puestos sobre aquellos propios de la entidad gestora y deberán ser retirados después de la finalización del acontecimiento.

SECCIÓN 6.ª Vestuarios

Artículo 36.

La utilización de los vestuarios de la instalación será coordinada por la entidad gestora del Palacio del Hielo Txuri-Urdin.

SECCIÓN 7.ª Cafetería

Artículo 37.

La utilización de la cafetería-restaurante se regirá por la normativa vigente sobre establecimientos de hostelería. En cualquier caso, se autoriza el acceso a la misma con patines, al área acondicionada exclusivamente para ello.

TÍTULO III

DE LOS CURSILLOS

Artículo 38. Ámbito de aplicación.

Lo señalado en este título será de aplicación a los cursillos organizados por el gestor de la instalación deportiva.

Artículo 39. Proceso de inscripción.

Al comienzo de cada temporada se establecerán las fechas y horarios para cada una de las fases de la inscripción en los cursillos y el procedimiento para apuntarse.

Dicho proceso se elaborará respetando los siguientes principios:

— Publicidad: Todo el proceso será público y podrá consultarse tanto por teléfono como en la Página web. Se dará especial difusión a las fechas de preinscripción y/o inscripción.

— Pago previo: Para que la inscripción sea considerada válida las personas que han obtenido plaza deberán abonar el precio del cursillo o una parte que se determine, antes de la fecha señalada para cada temporada. Si transcurrido dicho plazo no se ha efectuado el pago, se dará de baja dicha solicitud y la plaza quedará libre para ser ocupada por la persona siguiente de la lista de espera, si la hubiera.

Artículo 40. Anulaciones y suspensiones.

El importe de la matrícula no será devuelto en ningún caso, salvo que la anulación de la matrícula sea solicitada, como mínimo, siete días antes del inicio del cursillo.

No será motivo para la devolución del dinero de la matrícula el cambio de monitor/a.

Cuando por fuerza mayor se suspenda algún cursillo, se devolverá la parte proporcional del curso que haya sido anulado.

EK\CV GAO-I-2023-07554

Ikastaro bat eman ahal izateko, gutxieneko ikasle kopuru batek egon beharko du izena emanda ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago; kopurua desberdina izan daiteke ikastaroaren arabera. Ikastaro bat egiteko beharrezko gutxieneko izen-emate kopurua ez bada lortu, ikastaroa bertan behera geratuko da eta izena eman dutenei dirua itzuliko zaie, ahalik eta lasterren. Salbuespen gisa, kudeatzaileak erabaki dezake gutxieneko ikasketari kopurua lortu ez arren ikastaroa burutzea. Eskolen kalitatea ziurtatzeko, parte-hartzaileen gehieneko kopuru bat ezarriko da, ikastaroaren arabera.

Antolatutako jarduera guztietan bermatuko da begiraleko erabiltzaile matrikulatu kopurua ez dela izango kontratuaren pleguetan ezarritako ratioa baino handiagoa.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Beren lehiaketa jarduerak burutzen dituztenean, klubek zorrotz beteko dute kirol arloko nahiz seguruen, ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren inguruko indarreko araudian ezarritakoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen da Diputatuen Kontseiluaren 1999ko abenduaren 21eko erabaki bidez onartutako Txuri-Urdin Izotz Jauregiaren erabilerako araudi orokorra (2000/01/17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean) eta 2006/07/04ko eta 2011/12/13ko aldaketak, nahiz agindu honetan ezarritakoaren aurkakoa dioten baina maila berekoak edo txikiagokoak diren xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Gaikuntzak eta interpretazioa.

Arau hauetan ezarritakoaren interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza ebatziko du Gipuzkoako Foru Aldundian kirol gaietan eskumena duen organoaren titularrak, eta bere ebazpenak berehala bete beharrekoak izango dira.

Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen organoaren titularrak izango du eskumena arau hauetan ezarritakoa garatzeko jarraibide eta zirkularrak onartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen organoaren titularrak Txuri-Urdin Izotz Jauregia kudeatzen duen entitateari eskuordetu ahal izango dizkio arau hauetan foru organoari esleitzen zaizkion gaitasunak, arau hauen artikuluetan eskuordetzeko aurreikusten direnez gain.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Arau hauek indarrean jarriko dira Gipuzkako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean.

Donostia, 2023ko urriaren 6a.—Goizane Alvarez Irijoa, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua. (7554)

Todos los cursillos, para poder ser realizados, deberán contar con un mínimo de inscripciones válidas tres días antes del comienzo del cursillo que podrá variar en función el tipo de cursillo. En caso de que no se diera el número de personas mínimo para la realización de un cursillo se suspenderá el mismo, devolviéndose el dinero, a quienes se hayan inscrito, en el plazo de tiempo más breve posible. Excepcionalmente, la empresa gestora de la instalación podrá decidir llevar a cabo el curso aunque no haya obtenido el mínimo de cursillistas establecido. Para preservar la calidad de las clases se fijará un máximo de participantes dependiendo de la materia del curso.

Se garantizará que, en todas las actividades organizadas, el número de personal usuario matriculado por cada monitor no exceda de las ratios que se determinen en los Pliegos del contrato.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el desarrollo de sus actividades de competición, los clubes cumplirán estrictamente lo establecido en la normativa vigente al respecto, tanto la de ámbito deportivo como la restante aplicable en materia de seguros, espectáculos públicos y actividades recreativas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Derogación normativa.

Queda derogado el Reglamento de Uso del Palacio del Hielo Txuri-Urdin, aprobado por Acuerdo del Consejo de Diputados de fecha 21 de diciembre de 1999 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 17/01/2000), y sus sucesivas modificaciones de fecha 4/07/2006 y 13/12/2011, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la presente orden.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Habilitaciones e interpretación.

Cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de lo dispuesto en las presentes Normas de Uso, será resuelta por el órgano titular de la competencia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, siendo sus resoluciones inmediatamente ejecutivas.

El órgano titular de la competencia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa sera competente para la probación de instrucciones y circulares que desarrollen lo establecido en estas Normas de Uso.

El órgano titular de la competencia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá delegar en la entidad gestora del Palacio de Hielo Txuri-Urdin el ejercicio de las facultades que estas Normas de Uso atribuye al órgano foral, además de las que, a lo largo de su articulado, ya contemplan la posibilidad de delegación.

Segunda. Entrada en vigor.

Las presentes Normas de Uso entraran en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 6 de octubre de 2023.—La diputada foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, Goizane Alvarez Irijoa. (7554)

EK\CV GAO-I-2023-07554